

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Apirilaren 15era arte eskatzen ahal dira arte eszeniko eta musikal profesionaletarako laguntzak

552.000 euroko zenbatekoa dute eta Nafarroako Antzokien Sareari atxikiak nahiz agertoki baten titularrak diren udalei zuzenduta daude

Ostirala, 2019.eko martxoak 15

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak Nafarroako udalei zuzendutako dirulaguntzak emateko [deialdia](#) onartu du, 2019. urtean Foru Komunitateko udal agertokietan arte eszeniko eta musikal profesionalen programazioa (Udal Platea Local) bultzatzeko xedez. Laguntzen zenbatekoa 552.000 eurokoa da.

Laguntzak eskatzeko epea astelehenean, martxoak 18, hasi eta apirilaren 15era arte luzatuko da, eta Nafarroako Antzokien Sareari atxikita dauden nahiz agertoki baten titularrak diren udalek eskatzen ahalko dituzte, baldintza hauek betez gero: 10.000 eta 19.999 biztanle bitarteko populazioa (2018ko urtarrilaren 1ean) duten udalerriek 40.001 euroko gutxienezko inbertsioa egitea, eta 40.000 euro artekoa gehienez 9.999 biztanle dituzten udalerrien kasuan.

Dirulaguntzen xedea da laguntza ematea arte eszenikoen eta musikalen programazioari, publikoekin bitartekaritza egiteko jardueri eta egoitzei, baita artista elkartuen beste ekintza batzuei ere, arte eszenikoen eta musikaren arloko profesionalak kontratatuz. Jarduera horiek guztiak 2018ko azaroaren 6tik 2019ko azaroaren 5era bitartean egin beharko dira, biak barne.

Eskaerak nahitaez telematikoki aurkeztu beharko dira Erregistro Elektronikoko Orokorraren bitartez.

Laguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzen bitartez, gehienez, justifikaturiko gastu diruz lagungarrien % 70 estaltzen ahalko da, eta berdintasunez eta proportzionaltasunez banatuko dira udalen artean, eskaeren baremazioan lorturiko puntuazioaren arabera.

Deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek izanen dira diruz lagungarriak:

a) Talde profesionalen ikuskizunak kontratatzearen ondoriozko gastuak, balio erantsiaren gaineko zerga barne.

b) Publikoarekin bitartekaritza jarduerak egiteko kontratatutako profesionalak sortutako gastuak, balio erantsiaren gaineko zerga barne.

c) Egoitza, artisten elkarketa eta sorkuntza habia/laborategia proiektuak egiteko kontratatutako profesionalak sortutako gastuak, balio

erantsiaren gaineko zerga barne.

d) Diruz lagungarria den programazioaren sustapenak eta/edo publizitateak ekarritako gastuak, balio erantsiaren gaineko zerga barne.

e) Egile eskubideen kontzeptu gisa ordaindu behar diren gastuak, balio erantsiaren gaineko zerga barne.

Deialdi honetatik kanpo gelditu dira talde ez-profesionalen kontratazioa; bidaia, garraio, otordu eta ostatu gastuak; herriko arte eta/edo kultur entitateen parte-hartzea duten jarduerak; toki eta materialen alokairuak, errefortzu teknikoak eta/edo laguntza langileen kontratazioa eta Vianako Printzea Erakundea-Kulturako Zuzendaritza Nagusiak diruz lagundutako edo sustatutako ikuskizunei dagozkien gastuak.